



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko azaroaren 7a

99. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duena buruzkoa. Osasun Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan etxebizitza bat lortzeko edo hipotekei aurre egiteko zailtasunak gainditu edo arintzera bideratutako jarduketak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga arloan har litezkeen neurrien gaineko azterlan bat egin dezan, berritzaileen jardunaren hastapenak errazte aldera. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza, susta eta berma dezan herritarren benetako parte-hartzea osasun arloko politikan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zuzendu beharreko bide-seinale guztiak zuzen ditzan, Vitoria-Gasteiz izen ofiziala errespetatze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan itunik egin derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeekin, horietan matrikulatzean ikasleak sexuaren arabera bereizten badira. Mozioa Erretiratzea (11. or.).

—Foru Komunitatean gaur egun indarrean dauden hizkuntza erduei buruzko lan-talde bat sortzeko eskaera. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, *Milencho* kanpaina Nafarroako ipar-ekialdeko eta ipar-mendebaldeko herrietara ez eramateko arrazoiei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egin (12. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den sortu Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia, Ioseba Eceola-Latorre jaunak egin (12. or.).
- Galdera, zeru zabaleko meategi abandonatuei eta horiek leheneratzeko balizko neurri edo planei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (13. or.).
- Galdera, Aurizko liburutegi publikoari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (13. or.).
- Galdera, arkitekturako, ondare higigarriko, arkeologia-ondareko eta etnografia-funtsetako inbentarioei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak *Mentaliza zaituzte* kanpaina ikastetxeetan zabaltzeko baimenik ez emateko arrazoiei buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egin (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duena buruzkoa.

OSASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Osasun Batzordeak Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Osasun Batzordeak 2008ko azaroaren 5ean egindako bileran onetsia

Foru Lege proiektua, Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 53.1 artikulua ezartzen du Nafarroari, barne osasun eta higieine alorretan, gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak dagozkiola eta, gainera, Estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea. Era berean, 58.1.g) artikulua ezartzen du Nafarroako Foru Komunitateari dagokiola Estatuko legeria betearaztea farmazia establezimenduen eta produktuen arloan.

Farmazia laguntzari dagokionez, uztailaren 26ko 29/2006 Legeak, hau da, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Bermeei eta Erabilera Arrazoizkoari buruzko Legeak, zeina Konstituzioaren 149.1.16) artikulua babesean eman baitzen, xedatzen du,

84. artikuluan hain zuzen, osasun arloko administrazioek antolatuko dituztela farmaziak, betiere planifikazio orokorraren irizpidea kontuan hartuta, farmazia zerbitzua egokia izan dadin. Halaber, farmazien antolaketari begira, aintzat hartu beharko dira osasun zerbitzu egokia bermatzeko ezartzen diren gutxieneko eskakizunak, eskakizun materialak, teknikoak nahiz baliabideen arlokoak.

Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legeak ezartzen du zenbat farmazia behar diren gutxienez oinarritzko osasun eskualde bakoitzean eta herri bakoitzean, Foru Komunitateko populazio osoak farmazia laguntza berdintasunez eskuratzea lortu ahal izateko; ezartzen diren gutxienekoak bete gabe ezin izanen da farmazia berririk ireki Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean.

Farmazia Laguntzari buruzko Foru Legearen ondorioz, Foru Komunitateak alde batera utzi zuen ordura arteko erregulazio sistema, eta malgutasun planifikatua oinarritutako ereduaren alde egin zuen. Oraingo sistemak farmazia berriak irekitzeko bide eman du, farmazialarien borondatearen eta interesaren arabera, farmazia berria irekitzeko baldintza baizik ez dagoelako: haien arteko distantzia, 150 metrokoa gutxienez, eta Nafarroa osoan ezarritako farmazien kopurua, osotara, 700 biztanleko bat izan beharko baita, gehienez ere.

Farmazia zerbitzua kalitatezkoa izan dadin, beharrezkoa da oreka lortzea zerbitzuaz baliatze-ko aukera berdintasunaren –beraz, farmazien kopuru egokia izatea– eta haien errentagarritasun ekonomikoaren artean, medikamentuen hornidura behar adinakoa dela ziurtatzeko, aurrebaldintza hori, besteak beste, betetzen dela bermatu behar baita farmaziaren arloko planifikazioan.

Egun, zenbait herritan, irekitako farmazia bakoitzeko biztanle ratioa 700dik beherakoa da. Kasu horietan, arazoak egon daitezke populazioak medikamentuak eta osasun produktuak modu egokian eskura izateko.

Horrenbestez, komenigarria dirudi, farmazia laguntzaren kalitatea ziurtatze aldera, herri bakoitzeko farmazia kopurua mugatzea, farmazia bakoitzaren balizko bezeroen gutxieneko proportzioa 700 biztanlekoa izan dadin eta, halatan, medikamentu, osasun produktu eta farmaziako bestelako produktuen hornidura behar bestekoa eduki dezan. Hori guztia dela eta, foru lege honek azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legearen 27.2 artikulua aldatzen du. Horrela, Nafarroako farmazien gehieneko kopuruaren muga, arestian aipatutako 27.2 artikuluan aurreikusitakoa, desagertu, eta herri bakoitzeko farmazia kopuruaren muga ezartzen da.

Horrez gain, foru lege honek aipatutako 12/2000 Foru Legearen 35.2 artikulua aldatzen du, laguntza behar dutenentzako ehun plaza edo gehiagoko osasun eta gizarte zentroetan eman beharreko farmazia zerbitzuaren antolaketari dagokionez, foru lege horren beraren 5.2 artikuluan araututakoarekin bat etor dadin, agindu horrek debekatzen baitu hirugarrenek, entitateek edo enpresek irabazteko asmoarekin esku hartzea baimendutako establezimenduek herritarrei medikamentuak ematean.

Era berean, zehapen araubideari dagokionez, foru lege honek hiru aldaketa egin ditu. Arau-hauste larriak jasotzen dituen 47.4 artikuluan beste arau-hauste bat gehitu da, farmazia laguntza jarraituarekin lotutako betebeharrak ez betetzea alegia.

Bestalde, azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legearen 48.1 artikulua aldatu da, Estatuko legera egiten zen igorpena kendu eta arau-hauste arin, larri eta oso larrietarako aurreikusitako gradu bakoitzeko –txikiena, ertaina, altuena– zenbateko berriak ezartzeko.

Azkenik, eta zehapen prozedurari dagokionez, 49. artikulua aldatu da, berariazko prozedurarik ezean aplikatu beharrezko ordezkotako prozedura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. tituluan aurreikusitakoa izan dadin ezartzeko.

Artikulu bakarra. Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzea.

Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legearen 27.2, 35.2, 47.4, 48.1 eta 49. artikulua aldatu dira.

Bat. Hauxe izanen da 27.2. artikulua:

“27.2 artikulua. Nafarroako herri bakoitzean, gehienez ere, farmazia bat egonen da irekita 700 biztanleko. Behin kopuru horretara iritsita, bigarren farmazia irekitzeko baimena eman ahal izanen da populazioa 1.400 biztanlekoa edo gehiagoko denean, eta, hortik aurrera, 700 biztanleko tarte bakoitzeko. Nolanahi ere, farmazia bat irekitzeko baimena herri guztietan eman ahal izanen da, 700 biztanle baino gutxiago izanik ere.

Herri bakoitzeko biztanle kopurua zehazteko, farmazia irekitzeko eskaera egiten den egunean indarrean den udal erroldak adierazten duena hartuko da”

Bi. 35.2 artikulua testua hauxe izanen da aurrerantzean:

“35.2 artikulua. Aurreko idatz-zatian finkatu den eginbeharra gorabehera, b) letrari dagokionez, gizarte eta osasun zentroek zilegi izanen dute farmazia zerbitzua nola eman finkatzea zentroaren ezaugarrientzat egokiena den moduan, dela zentro bakoitzerako farmazia zerbitzu berezien bidez dela modu bateratuan zenbait zentrotarako”

Hiru. Beste arau-hauste bat gehituko da 47. artikuluko 4. idatz-zatian, z) letrarekin. Hauxe da testua:

“z) Farmazia laguntza jarraituarekin lotutako betebeharrak ez betetzea”

Lau. 48.1 artikulua testua hauxe izanen da aurrerantzean:

“48.1 artikulua. Foru lege honen 47. artikuluan aurreikusten diren arau-hausteen kasuan, bertan araututako establezimenduei badagokkie, zehapenak artikulua honetan xedatutakoari jarraituz ezarriko dira, kasuan kasuko graduak –txikiena, ertaina, altuena– aplikatuz arau-hauste maila bakoitzari, honako hauek kontuan harturik: zabarkeria, intzionalitatea, norainokoa izan den ados jartzea, iruzurra, aurretiko ohararazpenak bete ez izana, entitatearen negozioren zenbatekoa, eragindako kaltea, zenbat pertsonarengan duen eragina, arau-hausteak egileari ekarritako onura eta sortutako arriskuen izaera, iraunkorra edo aldi baterakoa:

a) Arau-hauste arinak:

Gradu txikiena: 600 euro arte.

Gradu ertaina: 601 eurotik 1.200 bitarte.

Gradu altuena: 1.201 eurotik 3.000 bitarte.

b) Arau-hauste larriak:

Gradu txikiena: 3.001 eurotik 7.000 bitarte.

Gradu ertaina: 7.001 eurotik 11.000 bitarte.

Gradu altuena: 11.001 eurotik 15.000 bitarte, eta zilegi izanen da kopuru hori gaintzea arau-haustean izan diren produktu edo zerbitzuek balio dutenaren halako bostera.

c) Arau-hauste oso larriak:

Gradu txikiena: 15.001 eurotik 210.000 bitarte.

Gradu ertaina: 210.001 eurotik 405.000 bitarte.

Gradu altuena: 405.001 eurotik 600.000 bitarte, eta zilegi izanen da kopuru hori gainditzea arau-haustean izan diren produktu edo zerbitzuek balio dutenaren halako bosteraino”

Bost. Hauxe izanen da 49. artikulua testua:

“Osasun Departamentuko organo eskudunak hasiko du zehatzeko espedientea, eta urtarrilaren 22ko 48/1996 Foru Dekretuan araututakoari jarraituz tramitatuko da, horren bidez onetsi baitzen osasun arloko arau-hausteak zehatzeko prozedura. Prozedura horren instrukzioa egin ondoren zehatuko dira administrazio arau-hausteak. Prozedurari buruzko berariazko araudirik egon ezean, espediente hauei Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. tituluari jasotako arauak aplikatuko zaizkie.”

Xedapen gehigarri bakarra. Beste arau batzuetara eginiko igorpenak.

Azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legeak Medikamentuari buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legearen arauetara igortzen duen aldiro, ulertu behar da Medikamentuen eta Osasun Produktuen Bermeei eta Erabilera Arrazoizkoari buruzko uztailaren 26ko 29/2006 Legearen kasuan kasuko artikuluetara igortzen duela.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetsen diren xedapenak.

Foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak indarririk gabe geratu dira.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2008ko urriaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu eta 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten

dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko abenduaren 1eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan etxebizitza bat lortzeko edo hipotekei aurre egiteko zailtasunak gainditu edo arintzera bideratutako jarduketak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar ditzan etxebizitza bat lortzeko edo hipotekei aurre egiteko zailtasunak gainditu edo arintzera bideratutako jarduketak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoan babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Ekonomiek eta gizarteek uneotan duten egoera ekonomiko eta finantzario zaila eragin zuzena izaten ari da gure herritarren sektore garrantzitsuetan. Bankuek eta aurrezki kutxek mailegatzen

duten diruaren interesen igoera etengabeak gero eta zama handiagoa dakar milaka herritarren ekonomia familiarren edo pertsonalen aukera mugatuetarako; izan ere, dirusarrera eskasak dituzte, gure erkidegoan ordaintzen diren soldata errealen ondorioz.

Gertakari honek egiazko zailtasunak ekarri ditu etxebizitza erosterakoan hartutako konpromisoei aurre egiteko eta bizi-maila egokia mantentzeko, elikadurari eta bizirauteko oinarritzko gastuei dago-kienez.

Era berean, krisi finantzarioak erabat itxi du etxebizitza erosteko kredituak eskuratzeko aukera. Gero eta jende gehiagok, babes ofizialeko etxebizitza baten onuradun izateko luze itxaron ostean, orain zapuztuta du ilusioa eta ase gabe beharri- zanak, ezin duelako hipotekarik eskuratu, bankuek ukatu egiten baitio.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa bereziak abian jar ditzan gizartearen sektore garrantzitsuak pairatzen ari diren zailtasun objektiboak gainditzeko edo arintzeko; hain zuzen, hipotekei aurre egiteko zailtasunak dituztenentzat, etxea galtzeko arriskua baitute, eta etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituztenentzat, babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenei uko egin behar izaten baitiete.

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga arloan har litezkeen neurrien gaineko azterlan bat egin dezan, berritzaileen jardunaren hastapenak errazte aldera.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zerga arloan har litezkeen neurrien gaineko azterlan bat egin dezan, berritzaileen jardunaren hastapenak errazte aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzaileen jardueraren hasierako etapa errazteko neurri fiskalei buruzko azterlan bat egin dezan.

Zioak

Negozio-asmoak gauzatzea erabakitzen dutenen jarduera profesional edo enpresarialeko lehenbiziko urteak ez dira errazak izaten. Zailtasun ekonomikoak izaten diren garaietan, berriz, arazoak ugaritu egiten dira. Hala ere, eta bizi dugun garaiko egoera orokorraren ondorioz, gora egiten du bere jarduera profesionala era autonomoan gauzatzea erabakitzen duen jende kopururak; are gehiago, gertatu ere gertatzen da zenbait ekimen abian jartzea.

Sustatzaileen jarduera horrek ez du babes nahikorik araudi fiskalaren ikuspuntutik; izan ere, honek ez ditu kontuan hartzen jardueraren hasierak berekin ekartzen dituen zailtasunak, ezta jarduerak sustatzeko ahalegin orok zergen arlotik jaso beharko lukeen babesa ere.

Dena den, badirudi mozio honen helburua inoiz baino justifikatuagoa dagoela, egoera ekonomikoa dela eta. Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen presta dezan ekintzaile berrien eta jarduera berrien lehenbiziko urteetako zerga-zama arinduko duten neurri fiskalei buruzko azterlan bat.

Iruñean, 2008ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza, susta eta berma dezan herritarren benetako parte-hartzea osasun arloko politketan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bultza, susta eta berma dezan herritarren benetako parte-hartzea osasun arloko politketan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza, susta eta berma dezan herritarren benetako parte-hartzea osasun arloko politketan.

Zioen azalpena

Herritarrek Nafarroako osasun sisteman parte hartu ahal izatea eskubidea da, eta gainera gure araudian jasota dago. Parte-hartze hori araututa dago arlo desberdinetarako, bai eremuko osasun kontseiluen bidez, bai ospitaletako kontseiluen eta beste bide batzuen bidez.

Herritarren parte-hartzea tresna erabilgarria da, batez ere osasuna sustatzeko prozesuetarako. Tresna baliagarria da, eta sistema hobetzeko beharrezkoa. Halaber, funtsezko garrantzia du osasunaren sustapenera bideratutako prozesu sozialetan, Osasunaren Mundu Erakundeak aitortu duen moduan.

Herritarren eta gaixoen parte-hartze aktiboa beharrezkoa da; horiek informazio eta prestakuntza hobea izan behar dute, eta horrek lagundu behar du, zalantzarik gabe, osasun zerbitzua eta haren kalitatea hobek izan daitezten.

Gaur egun, herritarrek parte-hartze txikia edo hutsala dute, eta ahaleginak egin behar dira horiek ahalik eta gehien parte har dezaten osasun sistema publikoan, alde batera utzi gabe, jakina, osasunaren arloko profesionalen eta Osasun Departamentuaren beraren inplikazioa.

Ahotsa eta botoa eman behar zaie herritarrei, erantzunkide egin eta prozesuaren zati gisa sartu, halako moduz non sistemaren egitura orokorretan –horietan sartzen dira baliabideak, antolamendua, kudeaketa eta emaitzen kontrola– hartzen diren erabakiekin konprometituta egonen den.

Nafarroako Gobernuak, gardentasuna helburu, herritarren parte-hartzea eta jarrera aktiboa erraztu behar du.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Bultza, susta eta berma dezan herritarren benetako parte-hartzea osasun arloko politketan eta berreskuratu eta abian jarri eta edukiz hornitu ditzan osasunaren arloko foro desberdinak; hain zuzen:

a. Nafarroako Osasunaren Kontseilua

b. Ospitale desberdinetako osasunaren kontseiluak.

c. Oinarrizko eskualdeetako eta osasun barruti-
etako osasunaren kontseiluak.

2. Parte-hartzeari buruz indarrean dauden ereduak ebaluatzea horiek hobetze aldera, bai eta eredu berriak aztertu eta sustatzea ere, gaur egungoak osatze edo hobetze aldera.

Iruñean, 2008ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zuzendu beharreko bide-seinale guztiak zuzen ditzan, Vitoria-Gasteiz izen ofiziala errespetatze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita zuzendu beharreko bide-seinale guztiak zuzen ditzan, Vitoria-Gasteiz izen ofiziala errespetatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

1979ko uztailaren 31n, Vitoria-Gasteizko Udalak Osoko Bilkura berezia egin zuen eta aho batez onetsi zuen hiriaren eta udal dermioaren izen ofiziala Vitoria-Gasteiz izanena zela, bai euskaraz, bai gaztelaniaz, frantsesez eta hizkuntza orotan.

Halaxe jasotzen du Euskaltzaindiak Euskal Onomastikari buruzko Datu Basean.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak ez du irizpide zuzena erabiltzen izen ofizial eta toponimikoei dagokienez. Azken aldian ez-betetzeak atzeman ditugu zenbait herri, kultur monumentu, toki eta abarren bide-seinaletan. Horien artean, nabarmentzekoa da Nafarroako zenbait bide-seinaleetan Vitoria-Gasteiz hiriaren izena soilik "Vitoria" gisa agertzen dela.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek honako erabaki proposamena aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bi hilabeteko epean zuzendu beharreko bide-seinale guztiak zuzen ditzan, Vitoria-Gasteiz izen ofiziala errespetatze aldera.

Iruñean, 2008ko urriaren 30ean

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan itunik egin derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeekin, horietan matrikulatzean ikasleak sexuaren arabera bereizten badira.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozio hau erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan itunik egin derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeekin, horietan

matrikulatzean ikasleak sexuaren arabera bereizten badira buruzkoa". Mozio hori 2008ko ekainaren 27ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Komunitatean gaur egun indarrean dauden hizkuntza erduei buruzko lan-talde bat sortzeko eskaera.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Foru Komunitatean gaur egun indarrean dauden hizkuntza erduei buruzko lan-talde bat sortzeko eskaera aurkeztu zuen.

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2008ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako eskaera baztertzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, *Milencho* kanpaina Nafarroako ipar-ekialdeko eta ipar-mendebaldeko herrietara ez eramateko arrazoiei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, *Milencho* kanpaina Nafarroako ipar-ekialdeko eta ipar-mendebaldeko herrietara ez eramateko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilari García Malo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez da eraman *Milencho* kanpaina Nafarroako ipar-ekialdeko eta ipar-mendebaldeko herrietara?

Iruñean, 2008ko urriaren 24an.

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakiteko zergatik ez den sortu Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez den sortu Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Garapenerako lankidetzaren Nafarroako Agentziari buruzko galdera

1. Zergatik ez da sortu Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia?

Iruñean, 2008ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, zeru zabaleko meategi abandonatuei eta horiek leheneratzeko balizko neurri edo planei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, zeru zabaleko meategi abandonatuei eta horiek leheneratzeko balizko neurri edo planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Harrobiak, oro har, eta udalerrietan dituzten ondorioak eta garapenak gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari dira gure gizartean. Nafarroa osoan badira zeru zabaleko meategi abandonatuak, besteak beste harrobiak, leheneratu ez direnak.

Horrenbestez, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

- Zehazki, zenbat dira abandonatuta dauden zeru zabaleko meategiak, besteak beste harrobiak, leheneratu ez direnak?

- Ba al da harrobi abandonatu horiek leheneratzeko neurri edo planik?

Iruñean, 2008ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Aurizko liburutegi publikoari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Aurizko liburutegi publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Aurizko liburutegia

Ba al daki Kultura eta Turismo kontseilariak Aurizko liburutegi publikoa itxita dagoela? Zergatik uste du kontseilariak itxita dagoela? Zer neurri hartu ahalko lituzke departamentuak liburutegia ireki dadin laguntzeko?

Iruñean, 2008ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, arkitekturako, ondare higigarriko, arkeologia-ondareko eta etnografia-funtsetako inbentarioei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, arkitektura-ko, ondare higigarriko, arkeologia-ondareko eta etnografia-funtsetako inbentarioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontuetan inbentarioei buruzko zenbait aurrekontu-lerro aurreikusten ziren; hona hemen:

- Arkitekturako inbentarioa
- Ondare higigarriaren inbentarioa
- Ondare arkeologikoaren inbentarioa
- Funts etnografikoen inbentarioa

Aurrekontu-lerro bera agertzen da 2009rako aurrekontuen aurreproiektuan.

Afera zer egoeratan dagoen jakiteko, honakoen berri izan nahi dugu:

Inbentario bakoitzaren gaur egungo egoera, kontuan hartuta azken helburua amaitzea dela, honakoak zehaztuz:

- aurreko urteetan inbertitutako zenbatekoak
- inbentarioren gaur egungo egoera, adieraziz lanaren zein ehuneko egin den eta zein geratzen den egiteko
- legegintzaldi honetarako aurreikuspenak

Iruñean, 2008ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Hezkuntza Departamentuak *Mentaliza zaitetz* kanpaina ikastetxeetan zabaltzeko baimenik ez emateko arrazoiei buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak *Mentaliza zaitetz* kanpaina ikastetxeetan zabaltzeko baimenik ez emateko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Jakin dugunez, Hezkuntza Departamentuak ez zuen baimenik eman *Mentaliza zaitetz* izeneko kanpaina egiteko eta zabaltzeko. Kanpaina horren helburua zen gazteak eta nerabeak sentsibilizatea, buruko gaixotasunak dituzten pertsonen errealitatearen eta gaixotasun horien tratamenduaren gainean, eta eskola-esparruan egitekoa zen.

Hori dela-eta, hau jakin nahi dut:

- Zeintzuk izan dira arrazoiak Hezkuntza Departamentuak *Mentaliza zaitetz* kanpaina ikastetxeetan zabaltzeko baimenik ez emateko?

Iruñean, 2008ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia Hiria

P. K. Probintzia

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	